

EBetako administrazio berriaren aurreikuspen ekonomiko eta komertzialak

2024ko abendua



Basque Trade & Investment cuenta con las autorizaciones necesarias para la elaboración del presente documento y sus anexos con información facilitada por los propietarios de las bases de datos utilizadas al efecto; así mismo, ha obtenido autorización para su difusión únicamente entre los destinatarios de los mismos.

Este documento y documentos anexos son confidenciales y dirigidos exclusivamente a los destinatarios de los mismos. Quedan terminantemente prohibidas la distribución, copia o difusión total o parcial de los mismos por ningún medio salvo a las personas autorizadas para su recepción dentro de la organización.

El destinatario se compromete a no manejar, usar, explotar o divulgar la información confidencial a ninguna persona o entidad por ningún motivo en contravención a lo dispuesto en esta cláusula, salvo que sea expresamente autorizado por escrito a hacerlo.

El uso no autorizado de la información contenida en el documento y sus anexos, así como el incumplimiento del deber de confidencialidad está sujeto a responsabilidades legales reservándose Basque Trade & Investment el derecho de reclamar el resarcimiento de los daños y perjuicios que le pudieran causar como consecuencia de la vulneración de sus deberes por parte del destinatario.

Basque Trade & Investment-ek behar diren baimen guztiak ditu dokumentu hau eta bere eranskinak prestatzeko horretarako erabilitako datu-baseen jabeek emandako informazioarekin; era berean, baimena lortu du dokumentu hau eta bere eranskinak banatzeko bakar-bakarrik bere hartzaileen artean.

Dokumentu hau eta bere eranskinak isilpekoak dira, eta bere hartzaileei bakarrik zuzentzen zaizkie. Guztiz debekatuta dago dokumentu horiek ezein bitartekoren bidez banatu, kopiatu eta osorik edo partzialki zabaltzea, salbu eta antolakunde barruan jasotzeko baimena duten pertsonen.

Hartzaileak hitz ematen du ez duela isilpeko informazioa kudeatuko, erabiliko, ustiatuko edo ezein pertsona edo erakunderi helaraziko ezelango arrazoiengatik klausula honek agintzen duenaren kontra, salbu eta idatziz ematen bazaio horretarako baimena.

Dokumentu honetan eta bere eranskinetan jasotako informazioa baimenik gabe erabiltzeak eta konfidentzialtasun betebeharra ez betetzeak ondorio legalak izango ditu, eta Basque Trade & Investment-ek eskubidea izango du kalte-ordainak eskatzeko hartzaileak bere betebeharrak urratzeagatik gerta litezkeen kalteengatik.



Aurkibidea

1. Estatu Batuetako egoera	2
1.1. Testuinguru makroekonomikoa	2
1.2. Lege-aldaketak	2
1.3. Doing Business	4
2. Inpaktua merkataritzan	6
2.1. EBrekiko politika komertziala	7
2.2. Munduko gainerako herrialdeekiko merkataritza-politika.....	9
3. Sektoreen gaineko inpaktua	11
3.1. Energia.....	11
3.2. Automobilgintza	13
3.3. Osasuna.....	14
3.4. Azpiegitura	15
3.5. Telekomunikazioak	15
1. eranskina: AEBko merkataritza-balantza, eskualdearen arabera	17
2. eranskina: AEBra egindako esportazioen hileko joera.....	17
3. eranskina: Euskadi-AEB merkataritza-harremanak	18



1. Estatu Batuetako egoera

2024ko azaroan Donald Trumpek presidentetzarako hauteskundeak irabazi izanak aldaketa adierazgarriak eragingo ditu Estatu Batuen politika nazionala eta nazioarteko politiketan.

1.1. Testuinguru makroekonomikoa

Estatu Batuetako ekonomia munduko handiena da, eta, nagusiki, kontsumo pribatuak bultzatzen du. BPGaren ia % 70 dagokio kontsumo pribatuari. G7-ko beste ekonomia batzuekin alderatuta, kanpo eskariarekiko duen mendekotasuna txikiagoa da, eta independentzia energetikoak babestu egiten du, neurri handi batean, lehengaien prezioen aldakortasunaren aurrean.

Trumpen politika ekonomikoaren baitan, immigrazioari mugak jartzea eta inportazioen bolumen handi bati muga-zergak jartzea aurreikusten da. 2025aren amaiera aldera has litezke neurri horiek ezartzen. Era berean, 2017an, haren lehen administrazio-aldian, martxan jarritako murrizketa fiskalak iraunkor bihurtu nahi izatea espero da.

Hazkundeari dagokionez, Estatu Batuetako ekonomia erresilientea da, produktibitatearen arloko aurrerapenei esker. Dena den, benetako BPGaren hazkundera moteldu egingo dela aurreikusten da: 2024an % 2,7koa izatea espero da, eta 2025ean % 2,2koa. Aldi berean, langabezia % 4,3ra igotzea espero da. 2026tik aurrera, hazkunde ekonomikoa moteltzeko arriskua areagotu egin liteke, politika erradikal posibleek inpaktu handia izango luketelako eskaintzan.

Erreserba Federala (Fed) haren moneta-politika murriztailea lasaitzen hasi da, eta 2024ko irailaz geroztik murriztu egin ditu interes-tasak. 2025aren amaiera aldera beste 125 oinarritzko puntu murriztea aurreikusten da. Nolanahi ere, muga-zergak eta lan-merkatu murrizagoak eragindako inflazioaren gaineko kezkek mugatu egingo dute murrizketa sakonagoak egiteko marjina.



Mundu mailako egoera politiko-ekonomikoaz informazio gehiago nahi izanez gero, **Basque Trade & Investmentek egindako Nazioarteko Behatokia** kontsulta daiteke (ikusi [hemen](#) azken edizioa).

KEY INDICATORS	2023	2024	2025	2026	2027	2028	2029
Real GDP growth (%)	2,9	2,7	2,2	2,0	2,0	2,0	2,0
Consumer price inflation (av)	4,1	2,8	2,2	2,5	2,5	2,3	2,2
Government balance (% of GDP)	-6,6	-6,9	-6,9	-7,0	-7,1	-7,3	-7,4
Current-account balance (% of GDP)	-3,3	-3,4	-3,2	-2,9	-2,7	-2,5	-2,5
Short-term interest rate (av)	5,1	5,1	3,7	3,3	3,0	3,0	3,2
Unemployment rate (%)	3,6	4,1	4,3	4,2	4,0	3,9	3,8
Exchange rate LCU:US\$ (av)	1,00	1,00	1,00	1,00	1,00	1,00	1,00

Iturria: The Economist Intelligence Unit 2024

Nazioartean, Txinarekiko lehiak menderatuko du Estatu Batuen kanpo-politika. Trumpek administrazioak aldebakarreko ikuspegia hartuko du, eta bi herrialdeen arteko hornidura-kateak bananduko ditu. Aldi berean, Europako eta Asiako aliatu tradizionala izandako lankidetzak estutik urruntzea espero da.

Erronka horiek aurrean izan arren, Estatu Batuen hazkunde ekonomikoa positiboa izaten jarraituko du 2025-2029 aldian, eta behera egiteko arriskua nahiko baxua izango da. Arrisku-faktore posibleen artean dago inflazioa eta interes-tasak haztea, tentsio komertzialek, krisi finantzario batek edo nazioarteko gatazka batek eraginda.

1.2. Lege-aldaketak

Donald Trumpen garaipen erabakigarriak eta Kongresuaren kontrol errepublikanoak adierazten dutenez, hasieran euren agenda ekonomikoa eta politikoa azkar ezartzen hasiko direla aurreikus daiteke. Hainbat neurri kokatzen dira testuinguru horretan, hala nola muga-zergak handitzea, migrazioa mugatzea, zergak murriztea eta desarautze-politika. Neurri horiek eragin handia izango dute Estatu Batuen barne-politikan zein nazioarteko harremanetan.



Muga-zergak eta merkataritza-politikak

Ondasunen defizit komertziala murrizten saiatuko da Trump, inportazioei ezarritako muga-zergak nabarmen handituta. Neurri horiek, segur aski, bertsio arinago batean ezarriko dira. Dena den, hornidura-kateetan eragin disruptiboa izatea eta presio inflazionistak sortzea espero da. Politika horiek eragin berezia izan lezakete tarteko inportazioen mendeko sektoreetan eta AEBren esportazioen lehiakortasunean. Txinarekiko tentsio komertzialak bereziki biziak izango dira. Bien bitartean, aliatu tradizionalakiko harreman komertzialak kaltetu egin litezke, transakzio-ikuspegi handiago baten ondorioz.

Erreforma fiskalak

Gobernu errepublikanoa 2017an ezarritako murrizketa fiskalak berritzen eta handitzen saiatuko da; murrizketa horietako batzuk 2025aren amaieran iraungitzen dira. Proposamen fiskal berrien artean, honakoen gaineko zergen murrizketak nabarmentzen dira: laneko eskupekoak, ordu estrak eta Gizarte Segurantzako prestazioak. Neurri horiek ongi ikusita daude boto-emaileen talde jakin batzuen artean, baina defizit fiskala handitu lezakete eta etorkizuneko politika ekonomikoetarako maniobrarako marjina mugatu lezakete.

Desarautzea

Trumpen administrazioak lehentasuna emango dio desarautze-politikari, hainbat sektoreetan gobernuaren esku-hartzea mugatzeko helburuz. Hala, murriztu egingo da agentzia federalen aurrekontua, eta ahuldu egingo da horiek arautzeko duten ahalmena; horrez gain, gutxiago gainbegiratu dira hainbat arlo, hala nola monopolioaren aurkako legeak, bankuak, kriptodirua eta kutsaduraren kontrola. Joera hori indartzen du Gorte Gorenak orain dela gutxi hartutako erabakiak: agentzia federalek lehendik dauden legeak interpretatzeko duten ahalmena mugatzea. Hala, handiagoa da funtsik gabeko epai legalak igortzeko probabilitatea eta epaitegi federaletan lana pilatzeko probabilitatea.

Energia eta azpiegitura

Trumpen irmoki defendatu izan ditu erregai fosilak, eta kritikatu egin izan ditu energia berriztagarriak. Haren administrazioak energia garbiko proiektuetarako pizgarri fiskalen ezarpena moteltzea espero da. Azpiegitura Legeak eta Inflazioa Murrizteko Legeak jasotzen dituzte aipatutako pizgarri horiek. Dena den, azpiegitura tradizionalak eta haren oinarri politikorako giltzarriak diren sektoreetako inbertsioak babesten jarraituko du; esaterako, ibilgailu elektrikoetarako kreditu fiskalak (bereziki, Tesla) eta erdieroaleen ekoizpen nazionala edo eskualdeko ekoizpena indartzeko subsidio teknologikoak.

Immigrazioa eta lan-merkatua

Etorkinen sarrera mugatzea eta deportazioak izango dira Trumpen migrazio-politiken oinarriak. Horrek erronka legalak ekar litzake, baina lan-merkatua gogor lezake. Eskura dauden langileen murrizketak handitu egin litzake kostuak enpresentzat, eta presio inflazionistak eragin litzake langile etorkinekiko mendekotasuna duten sektoreetan.

Inpaktua ingurune instituzionalean

Trumpen administrazioa Estatu Batuetako sistema politikoko kontrolak eta kontrapisuak ahultzen saiatuko da, exekutiboari botere handiagoa emanda. Kongresuaren polarizazioak eta alderdien arteko adostasun faltak zaildu egingo dituzte lege arloko aurrerapenak, gehiengo errepublikanoarekin guztiz lerrotatuta dauden neurriez harago. Gainera, herrialdeko araudi eta legedi arloko ingurunea moldatzen jarraituko du Gorte Gorenak. Izan ere, kontserbadorea da haren gehiengoak, eta haren eragina sendotu egin zen Trumpen lehenengo presidentetzan. Hainbat erabakik erakusten dute joera horren inpaktua, hala nola abortatzeko eskubidea kendu izanak eta agentzia federalen boterea murriztu izanak.

Epe luzeko proiektzioa

Hasieran kontrola errepublikanoena izan arren, alderdiaren barruko bereizketek eta Kongresuaren osaeran aurreikus daitekeen aldaketak (2026an, agintaldiaren erdian, egingo diren hauteskundeak direla eta) mugatu egin lezakete politika erradikalenen irismena. Dena den, hasierako aldi honetan zehar ezarritako neurriek (esaterako, muga-zergak, murrizketa fiskalak eta desarautzea) ondorio iraunkorrak izango dituzte Estatu Batuetako ehun ekonomikoan eta politikoan. Izan ere, handitu egingo da negozioen ziurgabetasuna, eta herrialdeak mundu mailan duen lehiakortasunari eragingo diete aipatutako neurriek.



1.3. Doing Business

Negoioetarako munduko helmuga erakargarrietako bat izaten jarraitzen dute Estatu Batuek, baina mundu mailan duten posizio erlatiboa apur bat okertu da. EUren enpresa-inguruneen mundu mailako rankingaren arabera, AEBren puntuazioa apur bat jaitsiko da 2020-2024 alditik (8,27) 2025-2029 aldira (8,22). Hala, bederatzigarren postuan egongo litzateke mundu mailan, eta hirugarren postuan G7-ko herrialdeen artean. Enpresa-ingurunekeo egiturazko indarguneen eta erronka berrien konbinazio bat erakusten du beherakada horrek.

Enpresa-ingurunearen indarguneak

Estatu Batuek jarduera nabarmena dute alderdi giltzarrietan, hala nola honako hauekin lotutako politiketan: enpresa pribatua, lehiakortasuna, lan-merkatua, finantzaketa eta prestaketa teknologikoa. Munduko kontsumo-merkatuak handiena izaten jarraituko du herrialdeak datozen urteetan, eta aukera adierazgarriak izango ditu hainbat sektore estrategikotan, hala nola teknologiaren, azpiegituraren eta energia berriztagarrien sektoreetan.

Trumpen administrazioak atzera botako ditu Bidenen administrazioan zehar martxan jarritako ingurumen-egitasmo ugari, baina osagai kritikoak (adibidez, erdieroaleak) ekoizpen nazionalari zuzendutako pizgarriak mantenduko ditu. Gainera, merkataritza elektronikoa etengabeko hazkundea izatea espero da, eta txikizkarien egoera tradizionala are gehiago eraldatzea.

Politika komertzialen eta fiskalen inpaktua

Trumpen administrazioak atzerriko inbertsioarekiko ikuspegi murriztaileagoa ezarriko du alderdi politikotik delikatuagoak diren sektoreetan; bereziki, Txinarekin lotuta. Aldi berean, tokiko eduki handiagoa eskatuko du fabrikazioan. Era berean, esportazio estrategikoen gaineko kontrolak handituko dira; bereziki, erdieroaleen makineriaren gisako sektoreetan. Bestetik, Mexikorekin eta Kanadarekin sinatutako USMCA merkataritza-akordioak Estatu Batuen interesei mesede egiten dieten emakida gehigarriak ekar litzake.

Zerga-politikei dagokienez, 2017an martxan jarritako murrizketekin (*Tax Cuts and Jobs Act*) jarraituko du Trumpen administrazioak. Zerga pertsonalen murrizketak handitzea eta neurri gehigarriak proposatzea izango da helburua, hala nola eskupekoen eta ordu estren gaineko zergak kentzea. Laneko diru-sarreraren gaineko karga fiskala arintzea eta kontsumoa bultzatzea dira egitasmo horien helburuak; bereziki, langileen artean.

Ez da espero zerga-tasa korporatiboa berehala aldatzerik, baina, Trumpen hauteskunde-kanpainan zehar aurkeztutako proposamenek erakusten dutenez, posible da egungo zerga-tasa, % 21ekoa, nabarmen jaitea: % 15era. Maila hori bat etorriko litzateke ELGA eta G20 buru dituen nazioarteko akordioan (*Gutxieneko Zerga Globalaren Akordioa*) ezarritako gutxienekoarekin. Urtean 750 milioi eurotik gora fakturatzen dituzten multinazionalak aplikatzen zaie akordio hori. Aplikatuz gero, neurri horrek nabarmen hobe lezake Estatu Batuetako enpresen lehiakortasuna, eta merkatu nazionalaren erakargarritasuna handitu lezake nazioarteko inbertitzaileen aurrean.

Ingurunekeo erronkak eta arriskuak

Estatu Batuetako enpresa-inguruneak erronka garrantzitsuak ditu aurrean, haren testuinguru makroekonomikoa eta politikoa dela eta. 2025ean hazkunde ekonomikoa % 1,7ra jaitsiko dela aurreikusten da (2024ko hazkunde zenbatetsia % 2,7koa da). Lan-merkatua ahulagoa izatearen eta interes-tasa altuen ondorioak erakusten ditu horrek. Gainera, polarizazio politikoak lege arloko aurrerapenak oztopatzen jarraituko du arlo oso garrantzitsuetan, hala nola aldaketa klimatikoaren, babes sozialaren eta inbertsio publikoaren arloetan.

Trumpen administrazioak migrazio-politikak gogortzeak (deportazio masiboak eta langileek babestutako bisen murrizketak barne), era berean, langile kualifikatuen eskuragarritasuna murriztu lezake, eta horrek ekonomiako sektore giltzarriari eragingo lieke.

Inpaktua teknologian eta araudian

Estatu Batuen lidergo ekonomikoa haren erakargarritasun enpresarialaren zutabe bat izaten jarraituko du. Dena den, enpresa teknologikoei araudi zorrotzagoak izango dituzte edukiari, algoritmoari eta lehiakortasunaren aurkako praktikei dagokienez. 2025-2029 aldian zehar, 5G sare mugikorrek eta adimen



artifizialaren aplikazioak haztea espero da. Horiek berrikuntza berriak eta merkatuko aukera berriak bultzatuko dituzte.

Nolanahi ere, agentzia arautzaileen autoritatea ahultzea da Gorte Gorenaren erabakia; izan ere, *Chevron* doktrina konstituzioaren aurkakoa dela adierazi du 2024an. Horrek ingurune ziurgabeagoa sortu du enpresentzat. 40 urtez baino gehiagoz, euren eskumenaren barruko lege anbiguoak interpretatzea ahalbidetu die doktrina horrek gobernuaren agentziei, eta horrek koherentzia handiagoa bermatzen zuen araudiak aplikatzean. Hura kentzeak enpresa arloko araudiaren arlo giltzarriak ezegonkortu ditzake, hala nola ingurumena, elikagaien segurtasuna, osasuna, telekomunikazioak eta laneko segurtasuna. Horrek arrisku legalak sortzen ditu enpresentzat; legeak betetzearen kostuak handitzen ditu, eta arauak aurreikustea zailtzen du.

Ikuspegi giltzarriak

- **Azpiegitura:** 2021eko azpiegiturari buruzko legediaren eta 2022ko CHIPS eta Zientziaren Legearen elementu giltzarriak mantenduko dira, baina energia berdearekin lotutako neurriak kentzeak mugatu egingo ditu jasagarritasun arloko aurrerapenak.
- **Moneta-politika:** Erreserba Federalak interes-tasak murrizten jarraituko du, 2025aren amaieran % 3,4ko maila efektibora iritsi arte. Dena den, defizit fiskal handiak mugatu egingo du epe luzean azpiegituraren arloko gastu publikoan igoera nabarmenak egiteko ahalmena.
- **Lan-merkatua:** Immigrazioaren arloko politika murriztaileen ondorioz, gutxitu egingo da langile kualifikatuaren eskuragarritasuna, laneko kostuak igoko dira eta hainbat sektoreen lehiakortasuna kaltetuko da.



2. Inpaktua merkataritzan

Mundu mailako tentsio komertzialak nabarmen haztea espero dugu. Izan ere, Estatu Batuekin superabit komertzial handiak dituzten herrialdeen gaineko presioa handituko du Trumpek. Txina kontinental da horietako lehena. Horrek ziurgabetasuna handituko du mundu osoko ekonomia eta industria ugartan.

Trumpek aldebakarreko politikak lehenesten ditu, «Lehenengo, Amerika» erakoak. Ondorioz, AEBren eta bazkide nagusien (NAToko kideak, Japonia eta Hego Korea) artean berriz ere tentsioak sortuko direla dirudi. AEB, era berean, aurkariengana gerturatzeko saiaturik da, hala nola Errusia eta Ipar Korearengana. Hala, AEBren aliatuak mesfidatu egingo dira, eta akordio immaterialen mesedetan kontzesio gehiegi egingo dituen beldur izango dira.

Dena den, posizio politiko sendoa duen arren, haren politikarik «erradikalenak» aldarrikatzeko orduan barneko eta kanpoko muga handiak izango dituela uste dugu. Nolanahi ere, ez da oso gertagarria balantza komertzialen eta kontu korronteen defizita sistematikoki murrizteko Trumpen administrazioak egiten dituen ahaleginek arrakastarik izatea. Epe laburrean, helburu hori lortzeko gerra komertzialek aztoratu egin litzakete Estatu Batuetako enpresak eta esportazioak.

Eranskin batean, AEBk hainbat eskualderekin duen balantza komertziala ikus daiteke. Hala, Txinarekiko, Asiako gainerako herrialdeekiko, EBrekiko eta Kanadarekiko defizitak nabarmentzen dira. Mundu mailan, defizit komertziala 1.062.111 milioi USDkoa da (2023).

AEBko zerbitzuen balantza, historikoki, garbiki positiboa da. 2023an 271.150 milioi USDko¹ superabita izan zuen, baina ez zen nahikoa izan aipatutako defizit komertziala konpentsatzeko.

Honako hauek izango lirateke muga-zergen igoera posibleak gehien kaltetuko lituzkeen herrialdeak:

Muga-zergen igoera (ekonomiak AEBrekiko duen esposizioa)	Txina, Mexiko, Kanada, Vietnam, Singapur, Taiwan, Costa Rica, Ekuador, Thailandia
AEBrekin superabit handiena izateagatik	Txina, Mexiko, Vietnam, Alemania, Taiwan, Japonia, Hego Korea, Italia, India, Kanada

Era berean, lehengaien merkataritzan ere inpaktuak espero dira. Metal industrialen kasuan, Trumpen garaipenak prezioen aldakortasuna eragingo du, dolarra indartsuagoa delako eta aldaketa politikoengatik (adibidez, muga-zergak eta defizit fiskalak). Halaber, inportatutako mineralei ere muga-zerga oldarkorragoak ezartzea espero da. Horrek Estatu Batuetan kritikoak diren lehengaien hornidurari eragin diezaioke; izan ere, pizgarriak kentzeak ahuldu egin lezake erauzketa nazionala.

Energiaren sektorean, petrolioaren prezioak behera egitea aurreikusten da, tokiko hornidura hobeak eta bake-akordio posibleek eraginda; dena den, Ekialde Ertaineko arriskuek hor jarraitzen dute. Trumpen politikak, erregai fosilen aldekoa izanik, LPEE+ erakundeari eragin diezaioke, eta haren hedapena susta dezake, araudi eta pizgarri fiskal gutxiagoren bidez.

Nazioarteko merkataritzaren egoeraz informazio gehiago nahi izanez gero, Basque Trade & Investmentek egindako **Merkataritza Behatokia** kontsulta daiteke (ikusi [hemen](#) azken edizioa).

Lehengaien merkatuen egoeraz informazio gehiago nahi izanez gero, Basque Trade & Investmentek egindako **Lehengaien Behatokia** kontsulta daiteke (ikusi [hemen](#) azken edizioa).

¹ Iturria: STATISTA



2.1. EBrekiko politika komertziala

Trumpen administrazioak Europako esportazioei muga-zerga berri bat ezartzen badie, azaroko presidentetzarako hauteskunde-kanpaina zehar iragarri zuen moduan, merkataritza-politika izango da AEBren eta EBren arteko desadostasun-puntu nagusia. Trumpen lehenengo agintaldian zehar (2016-2020), muga-zergen politikak izan ziren Estatu Batuen eta EBko blokearen arteko tentsio-iturri handiena.

Hauteskunde-kanpaina zehar, AEBren bazkide komertzial guztiei, EBri barne, % 10eko muga-zerga ezartzea iradoki zuen Trumpek. Neurri horrek, zalantzarik gabe, inpaktu negatiboa izango luke EBren merkataritzan. Azken asteetan Trumpek areagotu egin du mehatxua, eta inportatutako ondasun guztiei % 20ko muga-zerga orokorra ezartzeko aukera adierazi du. Nolanahi ere, Trumpen mehatxuak sortutako ziurgabetasunak eta EBren eta AEBren arteko tentsio komertzialen gorakada potentzialak, bata besteari muga-zergak ezarrita, negatiboki eragin diezaiekete enpresen konfiantzari eta EBko manufaktura-sektorearen jardura oztopa dezakete. Zerbaitegatik da EBren bazkide komertzial handiena AEB; 2023an 858.000 milioi dolarretik gorakoa izan zen elkartrukeen guztizko bolumena.

The Economist Intelligence Uniten (EIU) egindako Trump Arrisku Indizearen arabera —Estatu Batuetako politikak Trumpen agintaldian zehar dituen aldaketekiko esposizioa ebaluatzen du—, Estatu Batuetako merkataritza-politikak bira protekzionista bat izateak Alemaniari eragingo lioke gehien; Irlanda eta Italia dira hurrengoak.


Europaren barruan, Alemania da arriskurik handiena duen herrialdea, haren ekonomia esportaziora bideratuta dagoelako eta AEBrekiko superabit komertzial handia duelako. Hala, baliteke Trumpek bereziki eragitea Alemaniako luxuzko autoen esportazioei. Bundesbankek ohartarazi duenez, muga-zerga horiek % 1 murriztu lezakete BPGa, eta atzeraldia eragin lezakete. Alemania ahul batek nabarmen eragingo lieke Europaren hazkunde-aurreikuspenei, oro har. Dena den, ondorio konpentsatzaile txikiak ere sortuko dira; esaterako, Europako esportazioen lehiakortasuna hobetuko da, dolarra indartzearen ondorioz.

Arrisku txikieneko herrialdeen artean, Polonia nabarmentzen da, ez duelako ia zuzeneko salmentarik egiten AEBra, eta AEBri egiten dizkion erosketak militarrek bultzada handia dutelako; ondorioz, AEBrekiko balantza komertziala defizitera iristen ari da.

Europar, Trumpen bigarren presidentetzak Alemaniari eragingo dio gehien.

Trumpen bigarren administrazio-aldian espero diren aldaketa politikoekiko arrisku-indizea

TRI puntuazioa: 0 = arrisku txikia, 100 = arrisku handia



Iturria: EIU-Economist Intelligence Unit.



Europako produktuei muga-zergak ezartzearen ondorio potentzialen artean, honakoak aipa litezke:

- EBren kontraneurriak, AEBko sektore estrategikoei muga-zergak jarritz. Horrek handitu egingo luke bi blokeen arteko tentsio komertziala.
- Inflazioaren igoera EBN eta AEBn, muga-zergen kostuen gorakadak eraginda.
- EBk Asiako, Latinoamerikako eta Afrikako merkatu berriein dituen negoziaketak azkartzea, merkatuak dibertsifikatzeko helburuz.
- Europako enpresen ekoizpen-lantegiak AEBn ezartzeko prozesua azkartzea, muga-zergen gerra posible baten ondorioak arintzeko; bereziki, inpaktu handiena jasan dezaketen sektoreetan.

EiUren arabera, Europako altzairuaren, aluminioaren eta automobilgintzaren sektoreak, bereziki, arriskupean izango dira, sektore kimikoa eta farmazeutikoa bezalaxe. Halaber, honako sektore hauetan, dagoeneko, badira desadostasun-puntuak, eta horiek larriagotu egin daitezke urtarrean Trumpek bere kargua hartzen duenean.

Desadostasun-arloa	AEBren jarrera	EBren jarrera	Ondorio ekonomiko potentzialak
Altzairua eta aluminioa	CBAMi erantzute aldera, posible da Trumpek EBko altzairuari eta aluminioari muga-zergak ezartzea.	CBAMek muga-zergak ezarriko ditu altzairuaren, aluminioaren eta beste ondasun industrial batzuen inportazioen gainean 2026tik aurrera, 2023 eta 2025 arteko fase iragankor baten ostean.	Posible da Estatu Batuek berriz ere muga-zergak jartzea altzairuari (% 25) eta aluminioari (% 10), 2025eko martxoan CBAMen trantsizio-aldia amaitzen denean. Horren araudi zorrotzak ez dituzten herrialdeetako inportazioen aurrean, ekoizpen nazionalaren lehiakortasuna galtzeko arriskua du EBk. Hori dela eta, CBAMek muga-zergak ezartzen dizkiete karbonoaren tarifikazio-politika nazionalik ez duten herrialdeei. Horrek ez lioke aurre egingo Europako industria intentsiboek kanpoan duten lehiakortasunaren galerari.
Mineral kritikoak	Ez dakigu Trumpek IRA aldatuko duen edo indargabetuko duen, baina politika protekzionista mantenduko duela espero da, AEBko automobilen fabrikazioa bultzatzeko.	AEBko IRARI jarraikiz, European erauzitako edo prozesatutako mineral kritikoak erabiltzen dituzten ibilgailuentzat kreditu fiskalak lortu nahi ditu EBk, ibilgailu garbientzako desgrabazio fiskalei heldu ahal izateko.	EBko eta AEBko Merkataritza eta Teknologia Kontseiluaren lankidetzak amaituz gero, ez da gauzatuko Mineral Kritikoaren Akordioa; hori gertatuz gero, europarrek ezingo lituzkete eskuratu IRAREN kreditu fiskalak. Ondorioz, murriztu egingo litzateke Europatik AEBra esportatutako ibilgailuen kopurua. Hain zuzen ere, Europak herrialde horretara egiten duten esportazio nagusia da ibilgailuena.
Tasak zerbitzu digitalei	Trumpek esan duenez, European hartutako neurriak AEBko enpresa teknologikoei zuzenduta daude, modu	EBk neurri arautzaileak txertatu ditu EBko datuentzat, AEBko datuen enpresekiko	EBko arau berriak aplikatuta, baliteke AEBko enpresen kostu ekonomikoek gora egitea. Horrek, aldi berean, handitu egin



Desadostasun-arloa	AEBren jarrera	EBren jarrera	Ondorio ekonomikopotentzialak
	neurrigabea, eta tratubidegabea ematen dieteEuropako merkatuan.	mendekotasuna murrizteko helburuz eta subiranotasun digitala lortze aldera.	ditzake zerbitzu digitalen kostuak. Hazi egin da AEBren eta EBren arteko merkataritza-harremanetarako eta inbertsio-harremanetarako funtsezkoak diren mugaz gaindiko datuen fluxuen etorkizunaren gaineko ziurgabetasuna. Zerbitzu digitalen gaineko zergen erantzun gisa, AEBk kontraneurriak har litzake.

2.2. Munduko gainerako herrialdeekiko merkataritza-politika

Inportazioen gaineko muga-zergak handitzeko ahalegina egingo du Trumpen administrazioak, AEBko ondasunen defizit komertzial kronikoa murrizten saiatzeko (herrialdeak superabita du zerbitzuen merkataritzan, baina kontu korronteko defizit handia du). Ez da oso gertagarria Trumpen muga-zergen gaineko proposamenak guztiz aplikatzea, baina, leunduta ere, aztoragarriak izatea espero da. Izan ere, garrantzitsuak dira AEBren eta Txinaren arteko lehian.

Donald Trumpek inportazioaren gaineko muga-zergak nabarmen handitzeko asmoa duela iragarri du; bereziki, Mexikori, Kanadari (bi kasuetan, % 25eko muga-zerga inportatutako produktu guztiei) eta Txinari (lehendik dituen muga-zergez gain, beste % 10) zuzenduta.

Justifikazioa: Mexiko eta Kanada presionatzea dute helburu neurri horiek, AEBra zuzendutako legez kanpoko immigrazioaren eta droga-trafikoaren (bereziki, fentaniloa) aurkako ekintza zorrotzagoak gauza ditzaten; Txinaren kasuan ere bai. Dena den, gure ustez, lotura estuagoa dute “Make America great again” ideiarekin eta berrindustrializazioarekin.

Badirudi hori izango dela hainbat herrialderekiko merkataritza-politika.

Mexiko eta Kanada: Proposatu diren % 25eko muga-zergek nabarmen asaldatu lezake USMCaren testuinguruan ezarritako dinamika komertziala. Muga-zerga horiek kostuen igoera eragin lezake kontsumitzaile eta enpresentzat; Mexikok eta Kanadak errepresalia-neurriak har litzakete; eta ziurgabetasun ekonomiko orokorra eragin lezake eskualdean. USMCAk berrikuspen-xedapen bat ezarria du 2026rako. Bertan, herrialde kideek akordioaren baldintzak ebaluatu eta negoziatu ditzakete. Trumpek orain dela gutxi egindako adierazpenek iradokitzen dutenez, berritzearen onarpena eten lezake Estatu Batuek, berrikuspen horretan zehar konpromiso jakin batzuk berriz negoziatzera behartzeko.

Latinoamerika³: Latinoamerikarekiko konpromisoa ez zen lehenetan bat izan Trumpentzat haren lehenengo agintaldian (Mexiko alde batera utzita), baina politika komertzial protekzionistei ematen dien babesak eta immigrazioaren aurrean duen jarrera gogorrak arrisku handiak ekar diezazkioke eskualde osoari. **Brasilekiko** tentsio komertzialak handitzeko aukera. Izan ere, Trumpen agintaldian zehar, Brasilgo altzairuaren esportazioak kaltetu dituzte muga-zergek. Luiz Inácio Lula da Silvaren presidentek Trumpi egindako kritikek eta Trumpek lehendakari ohiarekin, Jair Bolsonarekin, dituen loturek, handitu egingo dituzte arrisku horiek. **Argentinak** eta **Txilek** jasango dituzten ondorioak mugatuak dira, baina Argentinak etekina atera diezaioke Estatu Batuekin harreman estuagoa izateari. Batzuek NDFrekin akordio emankorragoa egingo duela espekulatu dute, baina ez dirudi oso gertagarria.

Txina: Trumpen bigarren presidentetzak AEBren eta Txinaren arteko tentsio komertzialak handitzea espero dugu, Bidenen agintaldian gertatu zen tentsio-igoera apalaz harago. Trumpek Txinari egiten dion kritika handienetako bat AEBrekiko duen superabit komertziala da; izan ere, praktika komertzial desleialei egozten

² NewYork Post, azaroak 25: https://nypost.com/2024/11/25/us-news/trump-promises-executive-order-imposing-25-tariff-on-all-products-from-mexico-canada/?utm_source=chatgpt.com
³ Mexiko alde batera utzita; aurreko puntuan hitz egin dugu hari buruz.



die superabit hori Trumpek. Era berean, AEBko manufaktura-sektorean milioika lanpostu galdu izanaren errua botatzen die Trumpek Txinari eta eragiketak hara eraman dituzten AEBko enpresei. BMIren arabera, Trumpek ez du muga-zergarik jarriko bigarren agintaldiaren hasieran. Aldiz, mehatxua erabiliko du negoziaketarako taktika gisa, AEBren bazkide komertzial nagusien kontzesioak lortzeko; bereziki, Txinarenak. Dena den, Txinarekiko tentsio komertzialak nabarmen hazteak ez luke oztopatuko bi alderdien arteko akordio komertzial berri bat lortzerik (bigarren fasea); horrek tentsioak murriztuko lituzke aurrerago.

India: Asiaren hegoaldean, gerta daiteke Trumpek Indiarekin harreman adeitsua mantentzea, herrialde horren garrantzi geopolitikoa eta ekonomikoa handitzen ari delako, eta AEBk bi alderdiko babes ematen diolako New Delhirekin jarrera adiskidetsua izateari. Txinaren kontrapisu naturala da India, biztanleria handiaren, ekonomiaren, tamainaren eta kokapenaren ondorioz. Mendebaldeko enpresek Txinarekiko fabrikazio-zentro alternatibotzat hartzen dute, gero eta gehiago. Dena den, ez dugu uste India Estatu Batuekin «lerrokatzer» mugatuko denik mundu mailako gaitan. Independentzia estrategikoa lortzen saiatzen jarraituko du Indiak. Hala erakusten dute Errusiarekin eta Iranekin dituen harreman adeitsuek, eta BRICSen (Brasil, Errusia, Txina, Hegoafrika) eta Shanghaiko Elkarlan Erakundearen parte izateak.

Japonia eta Hego Korea: Trumpen lehenengo presidentetzan zehar (2017-2021) merkataritza arloan Japoniarekin eta Hego Korearekin sortutako tentsioak apur bat handituko direla aurreikusten dugu, baina, oro har, modu maneigarrian. Trumpek Japoniarekin eta Hego Korearekin zituen desadostasun nagusiak AEBrekiko superabit komertzialekin zeuden lotuta. Testuinguru horretan, baliteke Tokioko eta Seulgo kanpo-politikaren planifikatzaileak kezkatuta egotea, Trumpen bigarren agintaldiak merkataritza arloko eztabaidak berpiztu ditzakeelakoan.

Praktikan, Japoniarekiko eta Hego Korearekiko aliantzak mantentzearen garrantzia azpimarratuko dute Trumpen aholkulariek. Izan ere, ezinbestekoak dira AEBk Indo-Pazifikoan duen estrategiarako. Lotura horiek ahultzeak Txinari egingo lioke mesede, eta Trumpek Pekini pisua kentzeko egindako ahaleginen kontrakoa izango litzateke hori.

Errusia: Hainbat oztopo egongo dira Errusiara gerturatzeko. AEBk, politikoki, ez luke ia ezer irabaziko zigorrak leunduta. Izan ere, «jarrera txarraren» ordainsari gisa ikusiko litzateke hori. Errusiako tropek Ukrainan aurrera egingo balute, neurri gogoragoak ezarriko lirateke.



3. Sektoreen gaineko inpaktua

3.1. Energia

Trumpek arlo honetan marka litzakeen ildo politiko handiak honako hauek dira: petrolioaren eta gasaren erauzketa-industria sustatzea, Inflazioa Murrizteko Legearen (IRA) dirulaguntzak murriztea eta Estatu Batuak Pariseko Akordiotik ateratzea. Joan den abuztuan, berriro aukeratua izango balitz energia-sektorean Larrialdi Nazionala aitortuko zuela iragarri zuen, energiaren ekoizpena handitzeko eta kostuak murrizteko helburuz.

3.1.1. Energia berriztagarriak

IRAREN aldaketa potentzialek eragingo lukete inpakturik handiena sektorean; bereziki, energia berriztagarriko proiektuetarako kreditu fiskalen gaineko zuzkidurei dagokienez. Dena den, ez da espero guztiz indargabetzerik. Aritu batzuen ustez, **arritsu txikia** dago 48E Sekzioan Elektrizitate Garbian Inbertitzeko Kreditu Fiskala eta 45Y Sekzioan Elektrizitate Garbia Ekoizteko Kreditu Fiskala kentzeko. Izan ere, kritikak jaso dituzte, kredituetarako kalifika daitezkeen teknologia motengatik eta pizgarri horien kostuarengatik. Beste aukera bat Kongresuak kreditu horiek aldatzea da, hobari gehigarriak kenduta, hala nola Soldata Nagusiarengatik eta Ikasketengatik bonoa (Prevailing Wage and Apprenticeship), Komunitate Energetikoengatik bonoa edo Eduki Nazionalagatik bonoa. Hobari horien artean, Eduki Nazionalagatik bonoak ditu mantentzeko probabilitate gehien, Estatu Batuetako manufaktura sustatuko duten pizgarriak sortuko dituztela promes egin dutelako kanpainan zehar.

Bestetik, energia berriztagarrien barruan, posible da energia eolikoak arrisku handiagoa izatea eguzki-energiak baino; bereziki, itsasoko energia eolikoak. Izan ere, Trumpek energia mota errentagarrienei mesede egitea espero da, kostuak murrizteko eta barneko energia-hornidura handitzeko. Trumpek **itsasoko energia eolikoaren** aurkako jarrera argia du. Itsasoko proiektu eolikoak kenduko zituela ere hitzeman zuen, ingurumen arloko kezka eta bizitza basatiaren gaineko inpaktuak aipatuz. Politika-aldaketa horrek babes federala ahulduko luke, eta babes hori ezinbestekoa da sektorea hazteko.


Estatu Batuetako itsasoko energia eolikoak hainbat erronkari egin die aurre, proiektuen kostuen igoeragatik eta hornidura-katearen etenaldiengatik. Hala, ziur asko, ezegonkortasun handiagoa biziko du Trumpen Administrazioaren mende. Baimenak berrikusteko eta lortzeko prozesu federalak azkartu egin dira Bidenekin, eta nabarmen desazelera litezke Trumpekin. Horrek atzerapenak eta kostu handiagoak eragingo lituzke proiektuetan.

Aitzitik, gerta liteke lehorreko proiektu eolikoek aurrera egitea, baina erritmo geldoagoan, araudiaren eta finantzen arloko ziurgabetasun posibleak direla eta. Nolanahi ere, estatu mailako politikek oso garrantzitsuak izaten jarraitzen dute ahalmen berriztagarria hedatzeko.

   Inflazioa Murrizteko Legearen inpaktuaren gaineko informazio gehiago eskuratzeko, Basque Trade & Investmentek egindako txostena kontsulta daiteke (hemen eskuragarri).	   Sektore eolikoaren bilakaeraren gaineko informazio gehiago nahi izanez gero, Basque Trade & Investmentek egindako Behatoki Eolikoa kontsulta daiteke (ikusi hemen azken edizioa).
---	---



AEBn instalatutako ahalmena, guztira



3.1.2. Sare elektrikoak

Trumpek sektore energetikoaren garapena azeleratu nahi du, energiaren ekoizpena handitzeko. Hortaz, **azpiegitura elektrikoarekin lotutako proiektuak bultzatuko** direla aurreikus daiteke, sareen metaketari, horien modernizazioari eta energia helarazteko gaur egun dauden mugei heltzeko. Dena den, Bidenen administrazioko egitasmo ospetsuak indargabetzen saia liteke Trump. Esaterako, Sare Hobea Eraikitzen Egitasmoa (Building A Better Grid Initiative) eta Transmisioa Errazteko Programa (Transmission Facilitation Program). Iturri berriztagarrietarako trantsizio energetikoari heltzeko gai den azpiegitura erresilienteagoa eta eraginkorragoa sustatzeko diseinatu dira horiek. Programa horiek kentzeak atzeratu egin litzake proiektu estrategiko batzuk. Bereziki, sarean iturri berriztagarriak txertatzera bideratuta daudenak. Horrek inpaktu negatiboa eduki lezake eskari gorakorrari erantzuteko energia garbiak behar dituzten estatuetan.

Transmisioaren eta Banaketaren sektorearen bilakaeraren gaineko informazio gehiago nahi izanez gero, Basque Trade & Investmentek egindako T&D sektorearen Behatokia kontsulta daiteke (ikusi [hemen](#) azken edizioa).

3.1.3. Oil & Gas

Trumpen garaipenak mesede egingo dio Estatu Batuetako petrolioaren eta gasaren industriari. Izan ere, araudi arloko oztopo ugari desager daitezke, barneko ekoizpena hedatzeko helburuz. Horrek, aldi berean, mesede egingo lioke petrolioaren eta gasaren azpiegituraren garapenari. Orain dela gutxiko iturri batzuen arabera, posible da Energiaren Plan Nazional berri bat prestatzen aritzea, **gas natural likidotuaren (GNL) esportazioak handitzeko** eta **petrolio-zulatzeeen jarduerak handitzeko**. Era berean, Trumpek **lehendik dauden zerga-salbuespenak mantentzea** espero da, zulatzeeen kostu ukiezinen zerga-salbuespena barne. Eta ekoizpen independenteentzat amortizazio geofisiko eta geologikorako aldi laburragoa ezartzea ere espero da. Bestetik, Asiarekiko eta Europarekiko merkataritza murrizteak kalte egingo dio petrolioaren eta gasaren kontsumoari. Estatu Batuetako GNLen industriak hazten jarraitzea espero da, baina baliteke eskari txikiagoa eta muga-zerga handiagoak izatea, merkataritza-politikaren ondorioz. Estatu Batuek Pariseko Akordioari emandako babesa Trump presidentearen agintaldian amai liteke. Hala, ikatzetik gas naturalerako trantsizioa desazeleratu egin liteke, eta horrek Estatu Batuetako GNLen esportazioen eskariari eragingo lioke.

3.1.4. Hidrogenoa

Bidenen administrazioak babesa eman zion karbonoaren emisio baxuko hidrogenoari, 2021eko Azpiegitura Legearen bidez eta Inflazioa Murrizteko Legearen bidez; azken horrek 9.500 milioi dolar esleitu zizkion emisio baxuko hidrogenoari, eta ekoiztutako hidrogenoaren 3 USD/kg-ra arteko kreditu fiskala eskaintzen zuen.



Babes horren ondorioz, hidrogenoaren mundu mailako merkatuko eragile giltzarria bilakatu ziren Estatu Batuak. Dena den, Estatu Batuetako hidrogenoaren ahalmen handiena, oraindik ere, hasierako garapen fasean dago. Hori dela eta, **merkatua zaurgarria da aldaketa politikoen aurrean**. Trump, berriz, Bidenek bultzatutako karbonoaren emisio baxuko teknologiak finantzatzearen aurka dago. Hortaz, hidrogeno berdearen proiektuen etorkizunaren gaineko kezka sortzen ditu haren aukeraketak. Dena den, askotariko adituen ustez, hidrogenoa ekoizteko kreditu fiskala (45V) baliogabetzeko arriskua baxua da. Izan ere, errepublikanoak buru diren estatuetan onarpen handia du, hala nola Texasen, Louisianan eta Mendebaldeko Virginian. Hidrogenoa ekoizteko ahalmenaren garapenaren buruan daude estatu horiek; Texasen 45 proiektu daude. Era berean, karbonoa atzemateko eta gordetzeko kreditua (45Q) baliogabetzeko arriskua ere baxua dela uste da. Trumpen presidentetza dela eta, hainbat erronka izan ditzake hidrogeno berdeak. Baina estatu horietan hidrogenoarekin lotutako proiektuen etengabeko garapenak iradokitzen duenez, Estatu Batuetako hidrogenoaren merkatuak nolabaiteko indarra mantenduko du.

3.2. Automobilgintza

Sektoreko kalte potentzial nagusiak honakoetatik eratorriko lirateke: pizgarriekin lotutako aldaketa posibleak, emisioekin eta erregaien eraginkortasun-estandarrekin lotutako aldaketak, eta merkataritza-politikaren aldaketak.

Pizgarriei dagokienez, **IRaren zati batzuk baliogabetzeko** asmoa zuela iragarri zuen Trumpek kanpainako hitzaldietan. IRAk

dirulaguntzak eta zerga-salbuespenak jasotzen ditu ibilgailu elektrikoentzat. Hainbat adituren ustez, **arrisku handia** dago 30D sekzioko ibilgailu garbietako kreditu fiskala baliogabetzeko edo aldatzeko; eta, bereziki, ibilgailu komertzial garbiak erostera bideratutako kreditu fiskala (45W). Gainera, 30D kredituaren kostua nabarmena da. Kenduz geroz, errepublikanoak proposatzen ari diren beste pizgarri fiskal batzuk finantzatzeko erabil liteke. Hala ere, ez dakigu Elon Musken (Teslaren sortzailea eta, orain, Trumpen aldekoa) eraginak zer puntura arte arindu litzakeen neurri horiek. Beste kreditu batzuk mantentzea espero da, hala nola lehengai kritikoetarako eta tokiko osagaietarako kredituak, edo ibilgailuen fabrikazio aurreraturako kredituak, horiek lerrotatuago baitaude Trumpen administrazioarekin. Trumpek, era berean, gobernuak ibilgailu elektrikoaren karga-sareetan egindako gastua kritikatu du. Hortaz, posible da **Infrastructure Investment and Jobs Act (IIJA)** delakoak mugak izatea.

Emisioen eta erregaien eraginkortasun-estandarren araudi federalei dagokienez, ibilgailu arinen gaineko araudiak atzeratzea espero da; hasiera batean, 2028tik aurrera indarrean sartzeko daude programatuta. Gainera, kontuan izan behar da berotegi-efektuko gasen emisioen gaineko EParen araudiak eta ibilgailu arinentzako NHTSaren erregaiaren ekonomia-estandarrek ez daudela lerrotatuta. Estandar federal horiek lerrotatuz gero, arazoa sor liteke Kaliforniako estandar zorrotzenekin (baimen bereziaren bidez onartuak). Ibilgailu komertzial ertain eta astunei dagokienez (MHCV), posible da berotegi-efektuko gasen gaineko EParen emisio-estandarrek (3. fasea), 2027rako programatuta daudenak, berriz ere formulatzea. Laburtuz, honako hauek espero dira: NHTSaren CAFE estandarrek mantentzea, EParen araudietarako estandarrek doitzea (barne-errekuntzako ibilgailuei mesede eginez) eta CARB salbuespena (California Air Resources Board) doitzea edo baliogabetzea lehenengo ehun egunetan, baina erronka legalekin. Gainera, Bidenen administrazioaren helburua, hau da, 2035erako erregai fosilekin dabiltzan ibilgailuen salmentak debekatzea, atzera botatzea ere espero da.

Automobilgintza-sektorearen bilakaeraren gaineko informazio gehiago nahi izanez gero, Basque Trade & Investmentek egindako Automobilgintzaren Behatokia kontsulta daiteke (ikusi [hemen](#) azken edizioa).



Halaber, **muga-zerga berrien ezarpenak** sektorean inpaktu handia izatea espero da. Txinari muga-zergak ezartzeak garestitu egingo lituzke inportatutako osagaien kostuak, eta hornidura-kateak aldatzeko potentzial handia izango luke. Bestetik, Txinak handitu egin litzake Mexikon egindako inbertsioak, muga-zerga horiek saihesteko. Dena den, Trumpek politika protekzionistak susta litzake, ekoizpen-lantegiak berriz ere Estatu Batuetan kokatzeko. Bestalde, 2026an UMSCA merkataritza libreko ituna berrikustea espero da. Hala, Mexikoko soldadak eta estandarrak igotzeko eska lezakete Estatu Batuek zein Kanadak, haren lehia-abantaila murrizteko. Azkenik, inportazio garrantzitsuetan Europarekiko eta Japoniarekiko merkataritzari oztopo handiagoak jartzea espero da, defizit komertzialaren arrakala ixteko.

3.3. Osasuna

Arreta medikoarekin lotutako gastu federalaren gainean Trumpek presio egitea espero da, baina ez da erreforma politiko drastikorik aurreikusten. **Medicaid** programa federalek eta **Arreta Mediko Eskuragarriaren Legeak (ACA, Obamacare** izenez ezaguna) eragin negatiboa jasango dute, finantzaketa federalari eta legedi posibleari dagokienez. Ez da espero Trumpek ACA baliogabetzerik, baina Medicaiden finantzaketa eta hautagarritasuna are gehiago mugatuko duten erreformak ezartzeko xedapen espezifikoak ezar ditzake. Esaterako, hura berregituratzea, blokeko dirulaguntzetan edo per capita gehienekoetan. **Medicare**ren kasuan, 2024ko Konbentzio Nazional Errepublikanoan honako osasun-neurri posibleak nabarmendu ziren Medicare babesteko: gardentasuna sustatzea, hautaketa eta lehia handitzea eta sendagai berrien errezeta bidezko eskuragarritasuna hobetzea. Azkenik, senatuak **BIOSECURE Legea** onartzea espero da. 2024ko urtarrilean iragarri zuten, eta irailean onartu zuen Ordezkarien Ganberak. Hala, lege horren arabera, enpresa bioteknologiko txinatar jakin batzuekin kontratuak dituzten enpresek mugatuta dute finantzaketa eta agentzia federalekin kontratuak egiteko aukera.

3.3.1. Gailu medikoak

Aipatu ditugun kontuez gain, gailu medikoen sektorean inpaktuak gertatzea espero da, araudi-politikari, politika komertzialari eta prezioen politikari dagokienez. Eta berrikuntza-dinamikak ere jasango ditu eraginak.

Araudiari dagokionez, **FDA berritzea** proposatu du Trumpen administrazioak. Horrek inpaktu esanguratsua izan lezake gailu medikoen industrian. Industriaren erronkei motelago erantzutea eragin lezake agentzia berregituratzeak. Epe motzean, aldaketa horiek FDAren araudi-prozesuak alda ditzakete. Hala, hazi egin daitezke fabrikatzaileen kostuak, eta atzeratu edo bertan behera geratu daitezke gailu berrien irteerak Estatu Batuetako merkatuan. Dena den, epe ertainean, FDA azkarrago batek araudi-prozesuak sinplifika litzake, kostuak murriztu eta mundu mailako estandarrekin lerrokatu. Horrek erraztu egingo luke onarpenak azkarragoak izatea eta berrikuntza sustatzea.

Bestetik, Trumpen administrazioaren politikak eragin handia izan lezakete **gailu medikoen prezioen dinamikan**. Medicareren diru-itzultzeen tasak nazioarteko prezio-ereduekin (esaterako, egoera onena duten nazioetakoekin) lotuko balitu, Trump gai izango litzateke gailu mediko jakin batzuen kostuak murrizteko edo gailu merkeagoek merkatuan duten partaidetza handitzeko (askotan, inportatuak izaten dira.) Medicareren diru-itzulketak doitzeak prezio-igoera batzuk arindu ditzake, baina horrek gailuen multzo mugatu bakarrik eragingo lioke, eta gero eta presio finantzario handiagoa izango lukete gailu medikoen merkatuaren zatirik handienak eta osasun-sistemak, oro har.

Bestetik, **IRAk** eragin nabarmena du gailu medikoen sektorean. Izan ere, Medicareren baitan, sendagaien eta produktu biologikoen prezioak negoziatzeko ahalmena ematen dio Giza Osasunaren eta Zerbitzuen Sailari (HHS). Hala, gailu medikoen prezioen kontrol posibleetarako aurrekari bat ezartzen du. Era berean, IRAk zigorrak ezartzen dizkiete fabrikatzaileei, prezioak inflazioa baino gehiago igotzen badituzte. Horrek antzeko azterketa susta dezake gailu medikoen prezioen estrategietan. Dena den, ziur asko IRA berrituko duela esan du Trumpek, baina ez da oso gertagarria indargabetzea. IRAren barruan, 2025aren amaierara arte luzatu dira merkatu indibidualeko estaldurarako zabalduetako dirulaguntzak; jatorriz, Estatu Batuetako Erreskate Planaren Legearen parte ziren. Ez da oso gertagarria Trumpek dirulaguntza horiek zabaltzea. Nolabaiteko ziurgabetasuna dago horrek gailu medikoen sektorean izango duen inpaktuaren gainean.

Trumpek ezar litzakeen **muga-zergek**, era berean, gailu medikoen sektoreari ere eragingo liokete. Izan ere, ekoizpen-kostuak haziko lirateke. Inpaktu hori ospitaleetara eta osasun-sistemara hedatuko litzateke, horiek ezin baitute saihestu gailu medikoak erostea, eskaria ez delako malgua. Dena den, ez da espero muga-zergek, euren kabuz, manufaktura modu esanguratsuan birlokalizatzea lortzerik. Izan ere, Estatu Batuetako



fabrikatzaile gehienek gaitasun mugatua dute euren ekoizpena hedatzeko, eta FDAk araututako gailu medikoen ehuneko txiki bat baino ez da guztiz ekoizten herrialdean. Ondorio horiek arintzeko, gobernuak pizgarriak aplikatu beharko lituzke, ekoizpen nazionala sustatze aldera. Nolanahi ere, ez da oso gertagarria, esaterako, atzerrian fabrikatutako gailuei zuzendutako Medicare finantzaketa guztiz debekatzea. Izan ere, horrek arrakala nabarmenak sortuko lituzke arreta medikoko oinarritzko horniduran.

Halaber, Trumpen administrazioaren politikek **berrikuntza-ekosistema** asalda lezakete. Ikerketarako finantzaketa federalari egindako kritikak (bereziki, Osasun Institutu Nazionalen bidez) berrikuntza muga lezake, eta ikerketaren lehentasunak alda litzake. Bestetik, Trumpek horren zorrotza ez den araudia sustatzea espero da, **AA arloko berrikuntza** bultzatzeko. Desarautzearen aldeko joera erakusten dute 2023an AA arautzeari buruzko Bidenen agindu exekutiboaren (arriskuak arindu eta segurtasuna eta gardentasuna bermatu nahi zituen) aurka egin izanak eta haren indargabetze posibleak. Horrek sinplifikatu egin litzake araudia betetzeko baldintzak, eta I+G arloko inbertsioak erakar litzake. Hala, azkartu egingo litzateke AA oinarritutako gailu medikoen garapena, horien onartzeko oztopoak murriztuko liratekeelako.

3.3.2. Industria farmazeutikoa

Aipatu ditugun kontuez gain, industria farmazeutikoari dagokionez, ez da espero Trumpen gobernuan zehar sendagaien **prezioen inflazio-politikek** aldaketa esanguratsurik jasatea. Dena den, neurri batzuk berrikusiko direla aurreikusten da. Neurri horien artean, Medicarek estaltzen dituen sendagai jakin batzuen nazioarteko erreferentzia-zko prezio-sistema baten proposamena berrartu liteke, **“Nazio mesedegarriagoa”** izenekoa. Gainera, gerta liteke sendagaien fabrikatzaileei euren produktuen prezioak jakinarazteko eskatzea. Dena den, atzeratu egin litezke Medicareko **sendagaien prezioen negoziaketak**, Inflazioa Murrizteko Legeak (IRA) ezartzen dituenak eta 2026an indarrean sartzeko programatuta daudenak. Halere, ez da oso gertagarria horiek indargabetzea. Izan ere, Trump ados dago errezetatutako sendagaien prezioetan esku hartzearekin. Nolanahi ere, ez da espero programa zabaltzerik, beste sendagai batzuk sartzeko. Azkenik, Trumpek administrazioak Medicare eta Medicaid Zerbitzu Zentroen (CMS) egitasmoak babestea espero da, sendagai generikoen kostuak mugatzeko **koordainketei** dagokienez. Izan ere, haren administrazioak ere murriztu egin nahi du produktu farmazeutikoen kostua.

3.4. Azpiegitura

Trumpek gobernuak nabarmen alda litzake Bidenen administrazio-aldian zehar onartutako gastu federalari buruzko hiru lege garrantzitsu. Lege horiek funtsezkoak dira eraikuntzaren eta azpiegituren sektorea garatzeko: Azpiegitura Legea (IIJA), CHIPS eta Zientzia Legea, eta IRA.

Zehazki, **IRAre**n kasuan, energiaren edo automobilgintzaren sektoreen kasuan adierazi dugun moduan, eraikuntzaren eta azpiegituren sektorean eragina duten hainbat xedapen berrikustea espero da. Hala, IRAk barne hartzen dituen ibilgailu elektrikoetarako kreditu fiskalek dirudite zaurgarrienak, baita ibilgailu elektrikoetarako azpiegiturarekin lotutakoak ere. Halaber, arriskuak identifikatzen dira energia berriztagarriko proiektuetara bideratutako kreditu fiskalentzat; ziur asko, arrisku handiagoa du energia eolikoak, eguzki-energiak baino. Bestetik, hainbat adituren ustez, **arrisku baxua** dago manufaktura aurreratuaren ekoizpenerako kreditu fiskala (45X) indargabetzeko.

CHIPS eta Zientzia Legearen eta IIJAren kasuan, badirudi Alderdi Errepublikanoaren barruan badutela gutxieneko babes. Hortaz, ez da espero lege-aldaketa esanguratsurik. Dena den, Trumpen administrazio berriak Bidenen administrazioan zehar esleitutako funtsak eta dirulaguntzak berrikustea espero da.

Araudiaren beste aldaketa batzuek ere eragin liezaikete sektoreari. Esaterako, **muga-zergekin, immigrazioarekin, zergekin eta erregulazioarekin** lotutako politiken aldaketek. Merkataritza-politikaren kasuan, muga-zergak igotzeak hazi egin lezake inportatutako eraikuntzako intsumoen kostua. Araudiaren arloan ere eragingo dio administrazio berriak azpiegituren eta eraikuntzaren sektoreari. Ziur asko, ingurumen-arau zorrotzenak eta baimenen baldintzak leheneratzen saiatuko dira. Horrek azkartu egin lezake proiektu batzuk gauzatea; bereziki, erregai fosilekin lotuta dauden proiektuak.

3.5. Telekomunikazioak

Bigarren agintaldian, litekeena da Biden administrazioaren zuhurtziazko ikuspegitik urruntzea Trump, teknologia disruptiboak garatu eta ezartzeko; adibidez, AA eta kriptotxanponak. Halaber, AEB teknologian



gailentzen dela ziurtatzeko ahalegindu zen lehen ere, eta orain are ahalegin gehiago egingo ditu bide horretan.

Trump administrazio berriak **muga-zergak** berriz erabiltzea espero da, Txinak AEBko teknologia eskuratzeko aukera eta AEBrekin lerrokatutako merkatuei bere produktu teknologikoak saltzeko gaitasuna mugatzeko. Oro har, nola errepublikanoek hala demokratek uste dute Txinari gailentzen jarraitu behar dutela teknologiar dagokionez, eta Txinak abangoardiako teknologietarako funtsezkoak diren produktu amaituak, osagaiak edo fabrikazio-baliabideak eskuratzeko aukera neurri handian mugatzeko ahalegintzen ari dira. Horrelako teknologien adibide dira erdieroaleak, adimen artifiziala, kriptotxanponen soluzioak eta softwarea, besteak beste.

Halaber, Trump **txipei eta zientziari buruzko legearen** aurka agertu da duela gutxi. Haren esanetan, muga-zergak aplikatu behar zaizkio atzerrian egindako erdieroale orori. Hori gertatuko balitz, AEBn inbertitzeko asmoa kenduko litzaieke atzerriko fabrikatzaileei; esate baterako, TSMC eta Samsungi, AEBko dirulaguntzen mende baitago inbertsio hori. Atzerriko intsumoak erosten dituzten AEBko enpresentzako kostuak ere areagotuko lirarteke; adibidez, TSMCren txipak edo ASMLren makineria erosten dituztenentzat (Herbehereak). Horren harira, Txinak duela gutxi iragarri du erdieroaleak egiteko osagai nagusiak AEBra esportatzeko debekua ezarri duela.

Adimen artifiziala dela eta, espero da 2023ko urrian AAri buruz sinatutako agindu exekutiboa indargabetzea Trump administrazioak, eta teknologiarekin lotutako oso arau gutxi txertatzea.

Ziur asko, **sarearen neutraltasunaren arautzean** ere aldaketa esanguratsuak gertatuko dira, Biden administrazioa berrezartzen saiatu baita bere agintaldiaren hasieratik. Arau horien bidez eragotzi nahi da telekomunikazio-enpresa handiek eta Internet zerbitzuen hornitzaileek (ISP) azpiegitura digital kritikoko eduki edo zerbitzu jakin batzuk eskuratzeko aukera lehenestea, blokeatzea edo moteltzea.

Bestalde, AEBko herritarrentzat eta enpresentzat **banda zabalaren konektibitatearen eskuragarritasuna eta kalitatea areagotzeko** ahaleginak babestea espero da, eta Biden administrazioak abiarazitako arrazoizko konektibitatearen programak (ACP) babesturik jarraitzea. Haatik, banda zabalaren sarbidea eta ekitatea ezartzeko (BEAD) ekimenak babes neurtuagoa jasotzea espero da, telekomunikazio-enpresak ekimena baliatzeko uzkur baitira, landa-merkatuetan eta diru-sarrera txikiko merkatuetan derrigorrezko ikuspegi bat finkatu delako eta, horietan, inbertsioa itzultzeko aukerak gutxi direlako. Administrazio berriaren barne-lehentasun nagusia ekimen hori berregitea izan liteke.



1. eranskina: AEBko merkataritza-balantza, eskualdearen arabera


AEBko merkataritza-balantza, eskualdearen arabera (milioi USD)

Eskualdea	Esportazioak	Inportazioak	Merkataritzako saldoa
UE 27	367.626	576.314	-208.688
Europako gainerakoa	110.739	131.484	-20.745
Mexiko	322.742	475.216	-152.473
Kanada	354.356	418.619	-64.263
Amerikako gainerakoa	199.650	145.268	54.383
Txina	147.778	426.885	-279.107
Asiako gainerakoa	447.831	845.701	-397.870
Munduko gainerakoa	67.338	60.684	6.654
AEBko kanpoko merkataritza, guztira	2.018.059	3.080.170	-1.062.111

Iturria: US International Trade Commission

2. eranskina: AEBra egindako esportazioen hileko joera

Euskal esportazioak AEBra, hileko segida leundua



Iturria: EUSTAT, eta guk egina.



3. eranskina: Euskadi-AEB merkataritza-harremanak

Merkataritza-harremanak

AEB oso merkataritza-bazkide garrantzitsua da Euskadirentzat. 2023an, esportazioen hirugarren helmuga izan zen, eta inportazioen laugarren jatorria. 2024an, esportazioen laugarren helmuga izango da, eta inportazioen laugarren jatorria.

Jarraian ageri den taulan, azken 4 urteotako ondasunen merkataritza eta merkataritza-balantza ageri da, eta argi eta garbi Euskadirentzat aldekoa izan da.


Esportazioak nabarmen handitu ziren 2021, 2022 eta 2023an. 2024an, berriz, behera egiten aritu dira, kanpoko merkataritzarekin oro har gertatzen ari den bezala. Inportazioak asko handitu ziren 2021ean, eta batez ere, 2022an. Aldiz, 2023an eta 2024an behera egin dute.

Aipatu behar da AEBrekiko merkataritza-mugimenduetan eraginik handiena duen partida petrolioaren deribatuen dela. Urterik urtera, fluxu hori asko alda daiteke, eta produktu liderra da gure merkataritza-harremanetan, bai inportazioetan, bai esportazioetan, jarraian ikusiko den moduan.

Kanpoko merkataritza AEBrekin (mila euro)

	2020	2021	2022	2023	2024-abu.	23/22 hazk.	24/23 hazk.
Esportazioak	1.367.222	1.616.196	2.299.739	2.737.884	1.380.898	19,1	-17,0
Inportazioak	568.259	682.823	2.116.686	1.804.671	1.126.115	-14,7	-21,2
Merkataritzako saldoa	798.963	933.373	183.053	933.213	254.783		

Historiari begira, beheko grafikoan ikusten den bezala, esportazioek goranzko joera izan dute. Salbuespena 2009ko eta 2020ko krisiak izan dira, mundu osoko merkataritzan gertaturiko gorabeherengatik. Inportazioak neurri txikiagoan handitzen joan dira; 2022an, aitzitik, bikoiztu egin ziren petrolio-erosketen ondorioz.



Beheko taulan, AEBra esportatzen diren produktu nagusiak jaso dira. Lehen lau partidak (makineria mekanikoa, burdinurtua, ekipo elektrikoen ondasunak eta erregai mineralak) % 62,5 baino gehiago dira. 2024an, ibilgailu automobilen eta petrolioaren deribatuen salmenta jaitsi da batez ere.

Euskadik AEBra esportatzen dituen produktu nagusiak (mila euro)

Produktua	2023	2024-1. seihilekoa	% 2023	2024ko %
Guztira	2.737.884	1.380.898	100,0	100,0
84 Ekipo mekanikoen ondasunak	496.277	406.904	18,1	29,5
73 Galdaketaren manufakturak	368.775	179.639	13,5	13,0



Produktua	2023	2024-1. seihilekoa	% 2023	2024ko %
85 Makinak eta aparailu elektrikoak	159.879	144.895	5,8	10,5
27 Erregai mineralak	491.384	132.169	17,9	9,6
38 Askotariko produktu kimikoak	192.329	86.246	7,0	6,2
93 Armak eta munizioa	88.006	59.049	3,2	4,3
72 Burdinaren eta altzairuaren galdaketa	77.024	52.558	2,8	3,8
87 Automobilak	433.739	42.873	15,8	3,1
83 Manufaktura metalikoak	59.814	35.635	2,2	2,6
22 Edariak	33.449	24.843	1,2	1,8
76 Aluminioa eta haren manufakturak	29.666	20.809	1,1	1,5
82 Erremintak eta tresnak	22.047	19.722	0,8	1,4
40 Kautxua eta haren manufakturak	30.288	19.129	1,1	1,4

Beheko taulan, AEBtik inportatzen diren produktu nagusiak jaso dira. Petrolioaren deribatuen garrantzia aipatu behar da: 2023an, % 54,5 izan ziren, eta 2024an, % 62.

Euskadik AEBtik inportatutako produktu nagusiak (mila euro)

Produktua	2023	2024-1. seihilekoa	% 2023	2024ko %
Guztira	1.804.671	1.126.115	100,0	100,0
27 Erregai mineralak	982.653	698.460	54,5	62,0
12 Haziak eta olio-fruituak	282.305	95.582	15,6	8,5
84 Ekipo mekanikoen ondasunak	163.282	48.673	9,0	4,3
87 Automobilak	2.575	40.603	0,1	3,6
85 Makinak eta aparailu elektrikoak	42.438	30.580	2,4	2,7
90 Optikako instrumentuak	37.419	28.907	2,1	2,6
75 Nikela eta haren manufakturak	41.141	25.305	2,3	2,2
48 Papera eta kartoia	28.616	22.729	1,6	2,0
30 Produktu farmazeutikoak	18.905	18.207	1,0	1,6
26 Mineralak, zepak eta errautsak	18.390	9.154	1,0	0,8
55 Zuntz sintetikoak edo artifizialak	12.194	8.837	0,7	0,8
76 Aluminioa eta haren manufakturak	11.407	8.314	0,6	0,7

Bestalde, 1.000 euskal enpresa inguruk erregulartasunez esportatzen dute AEBra.

Ezarritako enpresak

Gure informazioari jarraikiz⁴, 137 euskal enpresa daude ezarritik AEBn. Guztira, 239 egoitza dituzte: 140 egoitza komertzial eta 99 egoitza produktibo. Mexikoren ostean, euskal enpresa gehien ezarrita dauden herrialdea da.

Ordezkaritza duten sektore nagusiak fabrikazio aurreratuko teknologiak, automobilgintza, energia eta ekoindustria dira⁵.

⁴ Iturria: Basquexport, eta guk egina.

⁵ Aipatzekoa da, identifikatu direnen artean, hondakinak birziklatzeko instalazio asko enpresa berarenak direla. Hala ere, garrantzi absolutuari erreparatuta, adibidez, automobilgintzako edo energiako egoitzak askoz esanguratsuagoak dira.



Egoitzak, sektorearen arabera

SEKTOREA	KOMERTZIAL A	PRODUKTIBO A	Guztira orokorra
FABRIKAZIO AURRERATURAKO TEKNOLOGIAK	56	10	66
EKOINDUSTRIA (2. oin-oharra)	1	36	37
AUTOMOBILGINTZA	15	21	36
ENERGIA	24	7	31
AHOLKULARITZA / INGENIARITZA	4	5	9
ELEKTRONIKA ETA TELEKOMUNIKAZIOAK	8	1	9
BESTE SEKTORE BATZUK	6	2	8
ETXETRESNA ELEKTRIKOAK	7	1	8
SIDERURGIA	2	5	7
ERAIKUNTZAREN ETA OBRA ZIBILAREN INDUSTRIA	4	2	6
NEKAZARITZA INDUSTRIA	2	2	4
AERONAUTIKA		3	3
ALTZAIURUAK ETA ETXEKO OBJEKTUAK	2	1	3
BIOZIENTZIAK	3		3
EHUNGINTZAREN INDUSTRIA	3		3
TRENGINTZA	1	1	2
ITSAS INDUSTRIA	2		2
INDUSTRIA KIMIKOA		1	1
GARRAIOA, MUGIKORTASUNA. LOGISTIKA ETA ITS		1	1
Guztira orokorra	140	99	239

Hona hemen egoitzak estatuaren arabera.

Egoitzak, estatuaren arabera

ESTATUA	KOMERTZIALA	PRODUKTIBOA	Guztira orokorra
MICHIGAN	12	14	26
FLORIDA	20	2	22
TEXAS	13	7	20
NEW YORK	9	7	16
ILLINOIS	13	3	16
GEORGIA	9	4	13
KALIFORNIA	7	5	12
MASSACHUSETTS	9	3	12
TENNESSEE	1	10	11
PENNSYLVANIA	6	5	11
CONNECTICUT	6	4	10
IPAR CAROLINA	6	3	9
HEGO CAROLINA		4	4
INDIANA	1	3	4
OHIO	2	2	4
ALABAMA	1	2	3
KANSAS	1	2	3



ESTATUA	KOMERTZIALA	PRODUKTIBOA	Guztira orokorra
NEW JERSEY	1	2	3
WISCONSIN	1	2	3
IOWA		2	2
LOS ANGELES		2	2
MENDEBALDEKO VIRGINIA		2	2
ARKANSAS	1	1	2
OKLAHOMA	1	1	2
MAINE	2		2
NEVADA	2		2
COLORADO		1	1
MINNESOTA		1	1
MISSISSIPPI		1	1
NEW HAMPSHIRE		1	1
MEXIKO BERRIA		1	1
PENNSYLVANIA		1	1
HEGO CAROLINA		1	1
COLORADO	1		1
DELAWARE	1		1
COLUMBIAKO BARRUTIA	1		1
KENTUCKY	1		1
MARYLAND	1		1
MISSOURI	1		1
OREGON	1		1
RHODE ISLAND	1		1
VIRGINIA	1		1
WASHINGTON	1		1
(hutsik)	6		6
Guztira orokorra	140	99	239

Mapan ikusten da egoitzak ipar-ekialdeko eta Aintzira Handietako estatuetan daudela kontzentraturik. Nahiz eta azken boladan interes handiagoa ikusten den hegoaldeko estatuetan, mugimendurik handienak Sun Belteko estatuetan detektatu dira; adibidez, Georgian, Tennesseeen, Ipar eta Hego Carolinan, Floridan eta Texasen.



Mapa: euskal egoitzak AEBn, motaren arabera



Urdirak: produktiboak. Gorriak: komertzialak

Berriki, hainbat lege federaletan jasotako laguntzak euskal enpresentzat onuragarriak izaten ari dira. Horien xedea da energia berriztagarrien erabilera bultzatzea, ekoizpen nazionala indartzea eta tokian tokiko lanpostuak sortu daitezen sustatzea. Inflation Reduction Act (IRA) legea horren adibide da. Hala, enpresak AEBn ezarri dira edo jada bazituzten inbertsioak handitu dituzte.

Batik bat, automobilgintzako eta energia berriztagarrien sektoreko inbertsioak handitu dira. Eta handitzen jarraituko dute, Washingtonen eta New Yorken ditugun bulegoetan ikusten ditugun laguntza- eta zerbitzu-eskaerak kontuan hartuta.

Makina-erremintako enpresek ere ikusi dute goraka ari direla eta eskaera handitu dela, Txinarekin dagoen egoera konplikatuaren eraginez.

Ikuspegi geografikotik, mugimendu gehiago ikusi dira hegoaldeko eta hego-ekialdeko estatuetan.

AEB oso merkatu erakargarria izan da beti euskal enpresentzat, baina, COVIDaren ostean, gero eta gehiago ezartzen ari direla ikusten dugu.

EUSKADI
BASQUE COUNTRY



BasqueTrade
& Investment



Urkixo zumarkalea, 36-5. Solairua. Bizkaia Plaza eraikina
48011 Bilbo info@basquetrade.eus
(+34) 94 403 71 60